

Joxe Azurmendiren borroka filosofiko politikoa

JAKINEN zenbaki honetan nabarmenduko dute ikerlariek Joxe Azurmendiren ekarpenaren handia euskal pentsamendurako eta kulturarako. Haren obraren sakonerak, ordea, ez zuen pentsalaria eraman abaguneko auzi politiko gordinenei izkin egitera. Orain agintariek diotena diotela, Azurmendik ez zuen erreparorik izan euskal elite politikoa eta intelektuala filosofikoki biluzik zebilela ohartarazteko. Indarkeria politikoaren garai bete-betean, pentsalariak nabarmendu zuen elite horiek, kontrainsurgentziarako araubideari makurtuta, funtsezko gatazka politikoak dikotomia sasi-etiko manikeoetara murrizten zituztela (hona hemen zorroztasun filosofikotik idatzi eta esanahi politiko ageria duten bi obra: *Demokratak eta biolentoak*, 1997, eta *Euskal Herria krisian*, 1999). Horrekin batera, filosofoak salatu zuen derrigorrezko pentsaera ezartzeko elite horien nahikeria (elkarte politikoak legez kanporatzea ere ekartzen ahal zuena), Espainiako tradizio historikoarekin bat zetorrena. Derrigorrezko pentsaera hori indarkeriaren mota konkretu bat, eta soilik indarkeria hori, ‘kondenatzeko’ manatuarekin hezurmamitu zen, Azurmendik *kondenamania* iritziko ziona (2012ko *Barkamena*, *kondena*, *tortura* saiakeran garatuko zuena). Erabiltako hitzak (*kondena*) kutsu judizial eta erlijiosoa izanik, hauxe ondorioztatu zuen pentsalariak, 2007an *Nabarra* hilabetekariari eskainitako elkarrizketan: «Estatu espainola beti Eliza izan da, orain ez daki Eliza ez izaten». Hartara, estatu liberalaren zuzenbide-filosofiaren printzipiorik behinena urratzen zuten elite politiko eta judizialak: «Estatuak ezin du kontzientzia inbaditu. Politikak hiritarren ekintza publikoak arautzen ahal baititu, inoiz ez kontzientzia».

Gatazka politiko horren azpian zeutzan auzi nazionalaren alde teorioenak ere jorratu zituen Azurmendik, nazioaren kontzeptuari buruz eduki historiko eta enpirikorik gabeko politika-zientzietako akademia espainolak kuttun duen beste dikotomia bat txikituz: irizpide ‘etni-

koa' eta irizpide 'zibikoa' kontrajartzen dituen, nazio-proiektu orok ez balu bezala homogeneotasun kultural edo linguistiko bat oinarri edo helburu, eta bere nazionalen atxikimendua lortu nahi ez balu bezala. Bestalde, sustrai kultural edo linguistikorik gabeko nazio 'zibikoa' existitzekotan, ez lirakeke ez Espainia, ezta Frantzia ere, Azurmendik *Espainiaren arimaz* (2006) eta *Historia, arraza, nazioa. Renan eta nazionalismoaren inguruko topiko batzuk* (2014) ikerketetan, hurrenez hurren, frogatu zuen bezala.

Azurmendik hizkuntzaren garrantzia ere nabarmendu zuen nazio-gintzarako (hala nola bere saiakeretatik azkenetako batean: *Hizkuntza, nazioa, estatua*, 2017), baita bere ikerketa-jardueran printzipio hori praktikan ipini ere, komunitatearen onbidea bere interes pertsonalen eta karrera akademikoaren gainetik jarrita. Auzi horretan ere egin zuen talka abertzaletasun tradizionalarekin, gaztelera izan baitu beti hizkuntza nazional nazionalismo jeltzaleak, baita Espainiako legediak gaztelerari ematen dion lehentasunari etekina atera bere praxi politiko linguistikoa zuritzeko ere. Hala ere, Azurmendiren ikerketa filosofiko linguistikoa ez zen mugatu naziogintzara. Aitzitik, *Humboldt. Hizkuntza eta pentsamendua* (2007) liburuan, gure pentsalariak filosofikoki ere kritikatu zuen hizkuntzaren kontzeptu instrumental hutsa, komunikaziorako tresna soilera murrizten duena, eta gogorarazi zuen pentsamendurako ezinbesteko baldintza dela hizkuntza, eta ez dagoe-la hizkuntzarik gabeko pentsamendurik.

Beraz, nabarmena da Azurmendiren konpromiso intelektuala gizartearekin, Euskal Herrian azken mende erdia markatu duten faktoreak jorratu baititu filosofoak bere obran: indarkeriaren gaineko eztabaida, naziogintza, eta hizkuntza.